



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bermeoko Udala

6-14 urte bitarteko haurrei gizarte ongizatea sustatzeko estimulazio eta eskuhartze goiztiarren tratamenduen gastuak ordaintzeko dirulaguntzen berriazko deialdia zabaltzea. BDNS (Identif.): 798286.

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/798286>).

Dirulaguntza honen xedea gizarte ongizatea sustatzeko 6-14 urte bitarteko haurrek behar dituzten estimulazio goiztiarra bermatzeko beharrezkoak diren tratamenduen gastuak diruz laguntzea da. Estimulazio eta eskuhartze goiztiarraren bidez hau da, eskuhartze prebentiboaren bidez, beharrezkoak diren haurren gaitasunen galera ahalik eta gehien gelditzea bilatu nahi da. Era berean, beraien eguneroko bizitzarako autonomia funtzionala ahalik eta gehien garatzea bilatzen da.

Eskatzaileak estimulazio goiztiarra eta eskuhartze tratamenduak behar dituzten 6-14 urte bitarteko haurren gurasoak edo ordezkari legalak izango dira.

Eskariak egiteko epea deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hurrengo 5 lan egunerarte.

Bermeon, 2024ko azaroaren 21ean. — Alkatea, Nadia Nemeh Shomaly